

» DISKOA

Halabeharraren doinuak



Joxi Ubeda Goikoetxea

Oso ona *Morau*-ren disko berria. Oso onak hitzak, doinuak eta kanta. Bere zazpigarren diskoa da, eta bere lanik pertsonalena. Hunkigarria, mingotsa, barrenak mugiarazten ditu. Halabeharraren edo ezinbestearen doinuak dira. Nahigabea, atsekabea... Sentimenduak puri-purian ageri dira.

Bere amaren gaixotasuna eta zaintza dira kanten ardatza. Duela hamabi urtetik gora amari alzheimerra diagnostikatu ziotenetik orain dela urtebete inguru zendu zen arte, harekin goizero paseo bat emateko eta bidean hartutako argazki bat Facebooken jartzeko ohitura hartu zuen Andoni Tolosa *Morau*-k. Amaren gaixotasunarekin eta zaintzarekin loturiko bizipenak idatziz jaso zituen, eta ibilaldi eta testu horiek izan dira lan honetako kantuen abiapuntua.

Horrela, ohikoak dituen ironia eta umorea alde batera utzi ditu, azalean eta kontrazalean ageri diren esaldietan izan ezik: *13 kantu belarritik hartzeko* irakur daiteke azalean, eta "Ez utzi kantuok haurren belarri eta eskuetatik hurbil. Ez dute errezetarik behar. Irakurri prospektua erabili baino lehen kontrazalean".

Lan xumea eta dotorea da. Ederra. Entzun aurretik ere nabarmena da, azala, CDa eta hitzen posterra biltzen dituen kartoizko kaxari erreparatuta. Artisautza lana da, artelana, *Morau*-k eta bere lagunek auzolanean eskuz egin, *do it yourself* (zuk zeuk egin ezazu) erara. Gainera, diskoak banan bana zigilatuta daude, argizari gorriarekin.

Kantuak ere modu horretan grabatu eta bere kasa argitaratu ditu. Peio Gorrotxategi

Egunsentiak alperrentzat MORAU

Autoekoizpena, 2018



aritu zen teknikari lanetan Ereinotzuko Aieta estudioan. 13 kanten artean Itoiz taldearen *Clash* eta *Pistols* kantaren bertsioa dago.

Aipagarriak dira Iñaki Martiarena *Mattin*-ek egin dituen ilustrazioak, eta Beñardo Goietxeren eta Giorgio Bassmattiren parte hartzea: Beñardo Goietxek (Mugaldekoak) koruak egin ditu kantuetan, eta Giorgio Bassmattik *Bi argazki* kantaren bertsio bat egin eta gitarra jo eta abestu du bertsio horretan. Ederki biribildu dute lan osoa.

Diskoa Morauren Bandacamp plataformaren bidez, Hernaniko hainbat lekutan eta jendaurreko emanaldietan bakarrik eskura daiteke. ■

Morau kantariak bere zazpigarren diskoa kaleratu du.

CONNY BEYREUTHER

